



Izenburua: **Kateriñe. Gerra-aztarna, bizi-taupada**

Egilea: **Maitena Illarramendi**

Ilustratzailea: **Iñigo Sarasola**

Bilduma: **Komikiak, 5**

ISBN: **978-84-1093-064-3**

Salneurria: **25,50 €**

KATERIÑE: EZ DA KOMIKI BAT, GURE AMAMAREN OIHUA DA

Istoria hau ez da hasten orain, ezta komikiaren lehen biñetarekin ere. Hasi zen 1936ko uztailaren 19an, gure amama Kateriñeren barruan, eta su baxuan gordeta egon da urte askoan. Orain oihu moduan atera da, irrintzi bihurtuta, eta guk forma eman diogu. Ez da oihu pertsonal bat soilik: beste askoren ahotsa ere bada. Gerrako zauri kolektibo baten adierazpena da, eta gaur egun ere bizirik dirau.

Amamak zioen: “Zuek ezin duzue ulertu zer den gerra bat, bizi egin behar da.” Montiren eskuzko lanari esker, sentitu eta ulertu dezakegu zertan datzan gerra barrutik bizitzea.

Nor zen Kateriñe Letamendi?

Kateriñe gure amama zen, eta askoz gehiago. Emakume sentsitiboa, intuitiboa eta memoria historiko bizikoa. 24 urterekin, Gerra zibilak eztanda egin zuenean, Tolosa utzi behar izan zuen eta bonbetatik ihesi ibili zen Donostia, Bilbo, Castro-Urdiales, Santander eta gero itsasoz erbesteratu zen. Biktima eta biziraulea izan zen.

Bere senarra, gure aitona, Eusko Jaurlaritzako agintarien txoferra izan zen. Autoan eserita, lehen eskutik jasotzen zuen informazioa, elkarriketak entzunez.

Eta testuak?

Amamak beti idazten zuen. Eguneroko bat zeraman, baina beldurragatik suntsitu egin zuen. Geroago, 80 urte pasata, berriz hasi zen. Guri ere beti kontatzen zizkigun gerra garaiko istorioak.

Ni Kateriñeren biloba naiz, eta testuak egokitzeaz arduratu naiz. Baina berez, Kateriñe Letamendi bera da obra honen benetazko autorea, nere amama. Iturri testuak amamak idatzi zituelako.

Beraz, gure harremanaz hitz egingo dut gehiago, komikian isladatzen den bezalaxe, Kateriñerentzat familia zen inportanteena, bere bizitzak gure inguruan egiten zuen bira, ez zitzaion besterik inporta. Batez ere bere hiru seme-alabak, eta bilobak ere, oso harreman goxoa eta gertukoa izan genuen amamarekin. Presentzia handia izan du gu guztion bizitzetan. Gure kasuan gainera 7 anai-arreba gara, aita beti lanean fabrian eta auzoan, eta amama etxean eukitzen genuen, amari laguntzen, bigarren ama baten pare: Ama-amama.

Ni pertsonalki lotura oso estua nuen berarekin. Nerabezaroan garai ilun bat bizi izan nuen, eta Antiguoko bere etxera joan nintzen. Nere bizitza argitu zuen eguzkia izan zen, babesa eta maitasun inkondizionala eman zizkidan. Harreman ia platonikoa genuen: elkar ulertzen genuen hitzik gabe, begirada batez, besarkada batez. Gero, Ameriketara joan nintzen eta eskutitz asko.

Irrintzia

Komiki honek gogorarazten digu gerra bera behin eta berriz errepikatzen dela, gaur egun ere: Gazan, Ukrainan... Herri xehea da hiltzen dena, beti. Goikoek mugitzen dituzte fitxak; guk, odola.

Ez da propaganda, ez da historia-liburu bat: bizipen erreal bat da, irakurlearen barren-barrenera heltzeko egina. Gerra ez da bonbak bakarrik: etxea galtzea, senideak galtzea, ihes egitea, beldurra hezurretaraino sartzea. **Amama negarrez ikustea da, eta orain bere malkoak hitz bihurtzea.**

Komikian bi testigantza agertzen dira: aitonarena eta amamarena, bi ikuspegi, bi min mota. Eta bi minen arteko elkarriketa. Helburua: hausnarketa eta oihu kolektibo bat piztea.

Azken mezua

Amamak zioen: “Zuek ezin duzue ulertu zer den gerra bat bizitzea. Nik bizi nuen.”

Agian komiki honek zulo horren ertzera hurbilduko zaitu, eta barruan zerbait mugituko da. Kateriñeren azken irrintzia da hau: bake-oihu bat, lur azpitik eta izarrenartetik.

GERRARIK EZ. EZ INON, EZ INOREKIN

Maitena Illarramendi
Donostia, 2025eko irailak 15